

BERRIAK BERRI

Anoetako aldizkari
informatiboa

86 zenb.

2025eko uztaila



ANOETA

elkarrekin eraikitzen

Herritarrekin batera

Egoitz Luisa Urkola

Anoetako alkatea



Atzo izan zela dirudien arren bi urte pasatu dira gobernu ardura hartu genuenetik. Aurreko agintaldian amaitu gabe gelditu ziren egitasmoei heldu diegu eta agintaldi honen hasieran egindako Gobernu Plana garatzen aritu gara. Pozik gara emaitzarekin, herritarren interes orokorra eta beharrak kontuan izanda anoetarren ongizatea baita gure lehentasuna. Erronka, asmo eta proiektuak taldean diseinatu, eztabaidatu eta erabakitzen aritu gara. Herritarrendik gertu. Herritarrei entzuten, ulertzen eta ahal dugun neurrian laguntzen eta arazoei soluzioak ematen. Ez ditugu beti eskaera guztiak bete, batzuk ez direlako udalaren

eskumenekoak edo beste batzuk azterketa sakonagoak eta soluzio konplexuagoak eskatzen dituztelako. Zoritxarrez, udalak baliabide mugatuak ditu. Hala ere, eskaera horiek jasota ditugu.

Herrigintzan aritu naizenean ohartzen ez nintzenaz, orain alkate bezala konturatu naiz, burokraziak sortzen duen atzerapena. Zenbat txosten, hasierako onarpen eta izaipide... zenbat azterlan, bilera, prozedura eta dekretu. Begi bistakoa da gauzak ondo egin behar direla, zuzen eta garden, administrazio guztien kontrol pean baina horrek sarritan ez dio herritarren beharri azkartasunez erantzuten. Ez ulertzeak sortzen dira eta batzuetan haserrealdiak sortarazten ditu. He-

rritarren artean eta udalgintzan ari garenon artean ere bai.

Baina lkasten ari gara. Proiektu nagusietan ere lehentasunak markatzen eta adosten ikasi dugu. Udalaren lanak ez dira gurekin hasi eta ez dira gurekin amaituko. Patxadaz, arduraz eta erantzukizunez jokatzeari dagokigu. Udalgintza, herrigintza-ren parte denez, amaigabea da. Beti izango da zeregina, beti nahi izango dugu Anoeta hobe bat eraiki.

Helburu horrekin datozen bi urteotan Gobernu Planean jasotako neurriak gauzatzen jarraituko dugu, eta beti eskatu eta eskertuko dugu herritarren laguntza eta babesa lan horretan. Horrela dela sentitzen dugu eta horrek izugarri pozten gaitu.

Junto a la ciudadanía

Aunque parece que fue ayer, han pasado dos años desde que asumimos la responsabilidad de gobierno. Hemos abordado los proyectos que quedaron inacabados en el anterior mandato y hemos estado desarrollando el Plan de Gobierno elaborado al inicio de este mandato. Estamos satisfechos con el resultado, nuestra prioridad es el bienestar de las y los anoetarras, teniendo en cuenta el interés general y las necesidades de la ciudadanía.

Hemos estado diseñando, debatiendo y decidiendo retos, aspiraciones y proyectos en grupo. Cerca de la ciudadanía. Escuchar, comprender y ayudar en la medida de nuestras posibilidades y abordar eficazmente las necesidades y desafíos que enfrenta la ciudadanía. No siempre hemos atendido todas las peticiones porque algunas no son

de competencia municipal u otras requieren estudios más profundos y soluciones más complejas. Desgraciadamente, el ayuntamiento dispone de recursos limitados. Sin embargo, esas peticiones ya las tenemos recogidas.

De lo que no me daba cuenta cuando me he dedicado a la dinámica popular desde la calle, ahora me he dado cuenta como alcalde, el retraso que genera la burocracia. Cuantos informes, aprobaciones y trámites iniciales... estudios, reuniones, procedimientos y decretos. Es obvio que hay que hacer las cosas bien, con corrección y transparencia, bajo el control de todas las administraciones, pero eso a menudo no responde con rapidez. Sin embargo, esta respuesta suele demorarse respecto a la inmediatez que requieren las necesidades ciudadanas. Surgen incompre-

siones y a veces provocan enfados. También entre las ciudadanas y los ciudadanos y entre los que nos dedicamos al municipalismo.

Pero estamos aprendiendo. También hemos aprendido a marcar y consensuar prioridades en los principales proyectos. Los trabajos del Ayuntamiento no han empezado ni terminarán con nosotras y nosotros. Nos toca actuar con calma, responsabilidad y esmero. El municipalismo no se acaba nunca. Seguirá siendo una labor permanente, siempre seguiremos construir una Anoeta mejor.

Con este objetivo seguiremos ejecutando durante los próximos dos años las medidas recogidas en el Plan de Gobierno, y siempre pediremos y agradeceremos la colaboración y el apoyo de la ciudadanía en esta labor. Sentimos que es así y eso nos alegra muchísimo.

Elkartasuna



Anoeta eta Echraifia baturik

Anoeta eta Mendebaldeko Saharar errefuxiatu kanpamenduetako Echraifia herria senidetu egin ziren maiatzaren 10ean, ekitaldi instituzional baten bitartez. Bertan, bi herrien arteko adiskidetasuna eta elkartasuna irudikatzeko, ikur sinboliko bana —ikurrina eta Mendebaldeko Saharako bandera— elkarrekin igo zituzten mastara.

Senidetze horren harira, ospakizun giroan burutu zen ekitaldia; izan ere, zuzeneko musika emanaldiek eta tokiko jan-edanek festa giroa sortu zuten. Ekintza hau, gainera, Tolosaldea Sahararekin elkartek urtero antolatzen duen Maiatza Borrokan egitasmoaren baitan kokatzen da, Saharako herriaren aldeko elkartasuna sustatzeko helburuarekin.

Senidetzeak ez ezik bi herriren arteko harremanak estutu eta elkarlanerako zubi sendoak eraikitze ere balioko du. Testuinguru horretan, Egoitz Luisa alkateak nabarmendu zuen tokiko komunitate batek bere konpromiso internazionalista eta solidarioa berrestea zein garrantzitsua den. Echraifia herriarekin sinatutako senidetze-akordioari esker, herri mailako lankidetzak sustatzeko aukera zabaltzen dela adierazi zuen, eta etorkizunean kultura, hezkuntza eta giza garapenaren arloetan ekimen bateratuak garatzeko bidea ere ireki dela.

Era berean, Elixabete Eizagirre, Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak, adierazi zuen senidetze elkartasunaren esparruan eman den beste «urrats garrantzitsu» bat dela.

Bestalde, Yaguta El Moukhtar, Sahararren Euskadiko Ordezkaritzako kideak, azpimarratu zuen senidetzeak ez litzatekeela posible izango Tolosaldea Sahararekin elkarrekin laguntzarik gabe.



Anoeta y Echraifia unidos

El Ayuntamiento de Anoeta y la localidad saharauí de Echraifia se han hermanado el 10 de mayo mediante un acto institucional. En él, para escenificar la amistad y la solidaridad entre ambos pueblos, han izado el más til símbolos simbólicos, como la ikurriña y la bandera del Sahara Occidental.

Con motivo de este hermanamiento, el acto se ha desarrollado en un ambiente de celebración, ya que las actuaciones musicales en directo y las comidas y bebidas locales han creado un ambiente festivo. Esta acción se enmarca, además, en el programa Maiatza Borrokan que organiza anualmente Tolosaldea Sahararekin, con el objetivo de fomentar la solidaridad a favor del pueblo saharauí.

No sólo sirve para hermanar, sino también para estrechar lazos entre dos pueblos, para construir puentes sólidos de colaboración. Han sido hermanados la ikurriña y la bandera del Sahara Occidental en el mástil ubicado en la entrada de Anoeta.

Legegintzaldi erdiko balorazioa



Elkarlana eta lankidetzaren bi urte hauetako oinarri

Aurreko gobernu taldeen zikloa itxita, duela bi urte hasitako agintaldiaren ardatza Gobernu Plana izan da. Gauzak ondo egiteko plangintza behar da, eta udalean gauzak ondo egin ohi dira. “Gobernu Plana egitea erabaki genuenean garbi genuen gure jardunari helburu batzuk jarri behar genizkiola, eta antolaketa on batez helburu horiek bete zitezkeela” adierazi du Anoetako alkate Egoitz Luisak. Izan ere, Gobernu Planaren baitan jasotzen diren neurri asko beteta daude eta beste hainbat bideratuta.

Gobernu Plana udal taldearen iparrorratza izan da bi urteotan eta bertan jasotzen diren neurriez gain, bestelako ekimenak ere burutu dituzte. “Proiektu handiak eta txikiak egin ditugu, baina batez ere, pozik gaude beharrezko ziren proiektuak eginda Anoeta aldatzen ari garelako”.

Hirigintzari dagokionez, besteak beste, herriko gune ezberdinetako hutsuneak identifikatu eta konpontzen ari dira. Mantenu lanak, konponketa lanak eta berritze lanak burutzen ari dira. Lan hauetako gehienak udal brigadak egin ditu; Plaza, zimiterioa, aterpea eta parkearen arteko lotura modu egokian gauzatzeko neurriak hartu dira, Lasarbe eremuko aisialdi guneko obra egiteko esleipenaren prestaketa lanak hasita daude; Udaletxeko eraikinaren efizientzia energetikoaren obra martxa onean doa; Errotaldeako eta Isasti, Hozpel, eta Etxaburu auzoetako eraberritze proiektuak laster batean udalbatzan onartzekotan dira; herri sarrerako bidegurutzearen obra gauzatu ahal izateko bitartekoak jarri dira eta Irura eta Anoeta arteko oinezko pasabidea konpondu da Irurako Udalarekin batera.

Hala ere, udal gobernuak jakitun da gauzak ondo egiteko





izapide korapilatsuak bete behar direla eta proiektuak ondo bideratu nahian nahi baino motelago doazela maiz, atzerapen horiek ezinegona sortuz herritar batzuegan eta baita gobernukideengan.

Bestetik, alkatearen arabera, bi urteko balantzea egiteko orduan proiektuak eta egitasmoak aurrera ateratzeaz gain, udal taldeak garrantzia eman dio egitasmo horiek egiteko moduari. “Guk herrigintza, eta gure kasuan, udalgintza, lankidetzan eta elkarlanean oinarritzen dugu. Egiten dugunak zentzua du herritarrekin edota herriko eragileekin batera egiten dugulako” dio alkateak. Ikastolako komunitatearekin, herriko gazteekin, tokiko merkatariekin, lehen sektoreko ekoizleekin, Matraka talde feministarekin, musika eskolarekin, kultur taldeekin... harreman estua izan du udalak, guztien ekarpenek aberastu ohi baitute edozein ekimen.



Priorizamos la colaboración con la ciudadanía

El gobierno municipal hace una valoración positiva de estos dos primeros años de legislatura. Según el alcalde Egoitz Luisa, el Plan de Gobierno marcado está dando sus frutos. “El tener un plan trazado nos ayuda a trabajar con orden, y nos indica si estamos cumpliendo los objetivos. En el equipo de gobierno estamos contentas y contentos del trabajo realizado hasta ahora y podemos decir que vamos por buen camino aunque nos gustaría avanzar a un ritmo más ágil”.

El hacer las cosas bien, a veces, requiere cumplir plazos, trámites y demás, pero a la larga da una seguridad jurídica a los proyectos planteados.

Además de finalizar proyectos el equipo de gobierno valora muy positivamente el cómo se están haciendo las cosas “porque para el gobierno municipal es una prioridad gobernar junto a la ciudadanía y los agente locales, tomando como base la colaboración y el trabajo en común” señala el alcalde Egoitz Luisa.





KULTURA ETA KIROLA

Ana Elozegi Artola

“Etorri berriek asko eskertu dute Harrera Gida”

Euskara eta kulturartekotasuna proiektua martxan jarri genuen 2024 urtean. Kontuan izanda Anoetako herria bizia eta euskalduna dela, oso garrantzitsua da proiektu hau. Proiektu honen helburuetako bat anoetarren komunikazio hizkuntza euskara izanik, eta hala jarraitzeko, herrian bizi eta jatorri atzerritarra dutenei, euskararen ulermena erraztea da. Horretarako bide berriak sortzen ari gara Anoetako Herri Ikastola, UEMA eta Anoetako Udalaren artean. Garrantzitsua da horrela egistamoak aurrera emateko elkarlanean egitea eta denak elkarrekin sare bat sortu behar dugu.

Horrezaz gain, Harrera Gida ere berritu dugu, azkena duela 10 urte egin baitzen. Honen helburua da, herrian erroldatzen direnei gure herriaren aurkezpena egitea, eta aldi berean herrian dauzkagun baliabideak eta zerbitzuak azaltzea.

Gida lau hizkuntzatan egin da: Euskaraz, Euskara-gazteleraz, Euskara-frantsesez eta Euskara-portuguesez.

Ekaina hasieran harrera saioa egin genuen eta bertaratutakoek asko eskertu zuten Harrera Gida.



EUSKARA

Mikel Olano Aburuza

“Euskararen Plan Estrategikoa egokitu dugu”

Anoeta herri euskalduna dugu eta horrela bizi nahi dugu. Horregatik Euskararen Plan Estrategikoa lantzen aritu gara bi urteotan indarguneak berritzeko eta gabeziak bideratzeko. Horretarako ezinbestekoa izan da herriko eragileen (talogileak, Ikastola, Anitz dantza taldea...) eta herritarren lankidetzeta, eta egindako inkesta emankorra izan da.

Bestetik, Korrika eta Euskaren Eguna bezalako ekimenak bultzatzen buru-belarri aritu gara, eta euskara ikasteko ahalegina egin duten herritarrek dirulaguntzak jaso dituzte. Hizki marrazki lehiaketa ikastolarekin bat eginda antolatu dugu. Anoetako paisaia euskalduntzeko karteldegia euskaratzeko eskatu diguten merkatariei iotzulpen zerbitzua eman diegu.

-Saiatu gara ahalik eta lan txukunena egiten eta herritarren erantzunarekin pozik gaude. Euskara herrian entzuten da eta horrek sentimendu pozgarria sortzen digu.



GIZARTE ZERBITZUAK

Bakarne Garmendia Usabiaga

“Larrialdiko etxea behar berezia duen familia bati utzi zaio”

Testamentu bitala egiteko hitzaldiaren ostean testamentu mota honen eskaera handia egin da. Pertsona nagusiak paseatzen dituztenek eskatutako tokietan bankuak jarri dira. Bestetik, Anoeta eta Irurako udalen artean prebentzio komunitario eta esku hartze sozio-hezitzailea eta psikosoziala egitea erabaki zen. Horretarako KALEXXAKoen elkarlanari esker bi hezitzaile, psikologoa eta koordinatzailea daude herrian zehar gazteen eta familien beharrei erantzuteko.

Ezintasuna edo familikoen laguntzarik ez duten pertsonei eguneko eta jatordu bakoitzerako sailkatutako botika kaxatxoak banatu zaizkie. Ekimen hau herriko farmaziarekin batera egin da.

Larrialdiko etxea behar berezia izan duen familia bati utzi zaio. Adinekoen parkea berritu eta erabilpena zabaltu dugu herriko osasun zentroarekin elkarlanean. Herriko osasun zentroko zerbitzuaren inguruko lanketa burutu dugu eta lehen arreta duina bermatu dadila exijitu.

Azkenik udala Zabalduz elkartekoekin bakardade, hauskortasun edo menpekotasun egoeran dauden zaintza diagnostiko bat egiten hasi gara.



HEZKUNTZA ETA GAZTERIA

Maialen Mujika Lizaso

“Altxa burua ekimena martxan jarri dugu”

Hezkuntza formalaren inguruan, herriko ikastolarekin eta Haurreskolarekin harreman zuzena mantendu dugu, gure haurrak herrian hazi eta hezteko aukera bermatuz. Beste egitasmo bat izan da haur eta nerabeen irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzak martxan jartzea udal liburutegian. Hezkuntza ez formalari dagokionean, Herri Hezitzailea taldean parte hartu dugu, harreman zuzena izanik. Aurten martxan jarri dugun proiektu garrantzitsuena “altxa burua” ekimena izan da. Ekimen honekin haur eta nerabeez gain, helduok ere pantailekin dugun harremanaz hausnartzen hastea izan da, gurasoentzat zuzenduriko hitzaldia antolatuz. Hitzaldi honetaz gain, gurasoentzat zuzenduta hitzaldi gehiago antolatu ditugu TREBA jardunaldien bidez. Oso argi dugu honetan guztian lanean jarraitu beharra dugula, gure herritarren etorkizuneko ongizatean lan eginez. Oso pozik gaude eragileekin dugun harremanarekin eta herritarrek izan duten partehartzearekin Herri Hezitzaileko taldean zein antolatu diren ekintzetan ere, honek aurrerantzean lanean jarraitzeko indarra eta gogoia ematen baitu.



INGURUMENA

Aitzol Esnaola Zubimendi

“Energia komunitate bat sortzera goaz”

Daukagun kontsumo ereduak eta lehenengo sektorearen egoerak asko arduratzen gaitu. Horregatik, hausnarketa egite aldera, lehenengo sektoreko herriko ekoizleekin bildu ginen. Beraien kezkak jaso ondoren, daukagun elikadura eta kontsumo ereduaren azterketa bat martxan jarri dugu Artamugarri elkartearekin elkarlanean. Helburua beste kontsumo eredu bat bultzatzea izango da, gure inguruan sortutako produktuak baloreen jarriz eta lehenetsiz. Hondakinen gaian organikoaren kudeaketan aurrerapausoa eman dugu auzo-konposta indartuz eta bertan parte hartzen duten herritarrek sarituz. Herritarren erantzuna oso ona izan da eta herriko etxebizitzaren %36ak sortutako organikoa herrian bertan kudeatzen da. San Isidro egunaren bueltan auzolana berreskuratzen saiatzen ari gara. Arlo honetan ere herritarrengandik jasotako erantzuna oso ona izan da azken bi urte hauetan eta aurrerantzean ere auzolana indartzen jarraituko dugu. Bestetik, energia berriztagarriak bultzatu asmoz, energia komunitate bat sortzera goaz. Asmoa ahalik eta gertuen sortutako energia “garbia” herritarren eskura jartzea da, horretarako herritarren arteko komunitate edo elkarte bat sortuz.



PAREKIDETASUNA

Amaia Urkola Arozena

“Kontzientzia feminista lantzen jarraituko dugu”

Adi eta So! Batzordearekin indarkeriaren prebentzioari begira elkarlanean jarraitu dugu ikastola eta gaztelekuarekin. Horrez gain, ahaldundutze ikastaroei buruzko lanketarekin jarraitu dugu Matraka Talde Feminista eta herriko emakume ezberdinekin. Indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloaren sinadura Covid garaian geldirik geratu zen, eta orain berriz martxan jarri da gaia Ertzaintza eta Osakidetzarekin koordinatuta, aurki sinatzeko helburuz. Tolosaldeako Emakume Etxearen ANDRAGORAREN barnean gaude eta bertako dinamikekin jarraitzen dugu. Bestetik, emakume eta gizonen berdintasunaren gaineko diagnostikoa egin da. Lehendik ere herriko kultur ekitaldi eta festak irizpide berdinzaleekin antolatzen badira ere, herritarrek, auditorioan gai parekideak lantzen dituen pelikulak eskatu dituzte. Irakurketa feministarekin jarraitzeko eskakizuna ere jaso da. Azkenik, udalak, Matraka Talde Feministak eta herriko emakume ezberdinek lanketa ezberdinetan hausnartu dugun bezala, herrian kontzientzia feminista lantzen jarraituko dugu. Horretarako eragile eta elkarte ezberdinekin elkarlana sustatuko da eta espazio ezberdinetan jardungo dugu.

Energia burujabetza

Energia komunitatea sortzeko lehen pausuak eman dira



Anoetako herrian trantsizio energetikoaren bideari ekin zaio, eta herritarrek aukera gero eta handiagoa dute kontsumitzen duten energiaren gaineko kontrola eskuratzeko. Izan ere, energia komunitateek aukera ematen dute herrian bertan energia berriztagarria ekoizteko eta auzokoekin elkarbanatzeko moduak adosteko, ikuspegi jasangarri eta kolektibo batetik abiatuta. Helburu horri begira, hainbat lantegi eta batzar antolatu dira Anoetan, herritarren parte-hartzea sustatzeko eta kontzeptuaren inguruko ezagutza sakontzeko.

Lehenengo batzarrean, komunitate energetiko baten definizioa eta haren funtzio nagusiak jorratu ziren. Parte-hartzaileek aukera izan zuten kontzeptuaren oinarriak sakonago ezagutzeko, baita halako ekimen batek ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspegitik eskaini ditzakeen onurez jabetzeko ere. Aurkezpenaren bidez argi geratu zen komunitate energetikoek energia berriztagarrien ekoizpena eta kontsumo arduratsua sustatzen dutela, eta, aldi berean, tokiko garapen jasangarriaren aldeko tresna eraginkorrak izan daitezkeela.

Lantegiek, era berean, Anoetako testuingurura egokitutako ikuspegi praktikoa eskaintzen dute.

Energia komunitatearen oinarriak modu argi eta eskuragarrian azaldu dira, eta herrian bertan garatu daitezkeen ekimen zehatzak aztertu dira. Halaber, parte hartzeko aukera duten eragileek eta herritarren profilak argitu dira, trantsizio energetikoa elkarlanean eraikitzeko helburu argiarekin.

Bigarren batzarrean, berriz, aurreko saioan landutako ezagutza praktikara eraman zen. Helburua komunitate energetiko baten sorrerarako lehen pausoak zehaztea izan zen, eta parte-hartzaileek ekarpen aktiboa egiteko aukera izan zuten. Horrela, proiektu kolektibo baten norabidean aurrera egiteko bidea zabaldu zen, eta energia-eredu berri, parte-hartzaileago eta jasangarriago baterantz lehen urratsak eman ziren.

Jarraian, hirugarren lantegi bat egin zen, ideiak elkarbanatzeko eta Anoetaren etorkizun energetikoa modu kolektiboan irudikatzeko. Ekimen honen bidez, burujabetza energetiko handiagoa lortu nahi da, jasangarritasunaren aldeko urrats sendoak emanez eta, aldi berean, energia-kontsumoan aurrezpen ekonomikoa sustatuz.

Behin fase hau igarota, irailean hasiko da Energia Komunitatea eratzeke fasea eta herritar guztiek izango dute aukera bertan parte hartzeko.

Se han iniciado las primeras acciones para crear una comunidad energética

En Anoeta ha comenzado un proceso de transición energética con el objetivo de que los vecinos tengan mayor control sobre la energía que consumen. Se están creando comunidades energéticas para producir energía renovable localmente y compartirla entre vecinos de forma sostenible y colectiva.

Se han organizado talleres y reuniones para informar y fomentar la participación ciudadana. En ellos se ha explicado qué es una comunidad energética, sus beneficios ambientales, económicos y

sociales, y cómo puede desarrollarse en el propio municipio.

En las primeras sesiones se sentaron las bases del proyecto, y en las siguientes se definieron los primeros pasos para ponerlo en marcha. Los talleres también ayudaron a perfilar los posibles participantes y las acciones concretas que se pueden llevar a cabo en Anoeta.

El objetivo final es lograr una mayor independencia energética, promover la sostenibilidad y reducir costes en el consumo de energía.

Auzolana

Herriko altxorak ezagutzeko bide berriak

Udalak bi ibilbide prestatu eta aurkeztu zituen, herritarrentzat zein bisitarientzat atsegin eta irisgarri izan zitezen. Ekimen hori San Isidro egunean, baseritarren egunean, maiatzaren 17an, antolatutako auzolan egunaren baitan gauzatu zen. Egun horretan, ibilbideak garbitu eta seinaleztatu ziren, herritarren lankidetzak estuari eta inplikazioari esker.

Ibilbide horien helburu nagusia da herriko bazter ederrak modu egoki, seguru eta atseginean ezagutzeko aukera ematea, ingurunea zaindu eta balioan jarri, eta, aldi berean, herritarren zein bisitarien ongizatea sustatzea.

Horri buruz gehiago jakiteko, eta ekimenaren atzean dagoen ikuspegi sakonago ezagutzeko, hitza hartu dute Amaiur Luluagak eta Xabier Aseginolazak

Nuevas vías para conocer los tesoros del pueblo

El Ayuntamiento preparó y presentó dos itinerarios para que resultaran agradables y accesibles tanto a la ciudadanía como a los visitantes. Esta iniciativa se llevó a cabo en el marco del día comunal organizado el día de San Isidro, el 17 de mayo. Ese día se procedió a la limpieza y señalización de los recorridos gracias a la estrecha colaboración e implicación ciudadana.

El objetivo principal de estos recorridos es ofrecer la posibilidad de conocer de forma adecuada, segura y amena los bellos rincones de la localidad, y poner en valor el entorno, a la vez que se fomenta el bienestar tanto de la ciudadanía como la de los visitantes



Nolakoa izan da zure esperientzia auzolanean parte hartzen?

Amaiur: Oso positiboa izan da! Kalekume hutsa naiz eta auzolanetan esperientzia handirik ez nuen, baina egindako lanetatik asko ikasi dut, eta batez ere, oso gustura aritu naiz elkarlanean aritu ginen taldearekin.

Xabier: Esperientzia oso aberasgarria izan da. Gustura lan egin dugu elkarrekin, elkarri irakatsiz eta elkarrekin ikasiz. Polita izan da, zalantzarik gabe.

Auzolan eguna zertan oinarritzen da?

Amaiur: San Isidro eguna aitzakia hartuta antolatu zen, eta nire ustez, komunitatea sortu eta herriko jendea elkartzeko nahiaz gain, bazegoen baserritarrei laguntza eskaintzeko asmoa ere.

Zer lan egin zenuten zehazki ibilbideak prestatzen?

Xabier: Ibilbideak garbitu eta berriro ireki dira, izan ere, aspaldian itxita geratu ziren. Bidean eroritako zuhaitzak moztu eta kendu dira, ibilbideak behar bezala seinaleztatu dira, eta konpondu beharrean zeuden ataka batzuk ere egokitu dira.

Zer iruditzen zaizkizu prestatutako bi ibilbide hauek? Uste duzu baliagarriak izango direla herritarrentzat eta bisitarientzat?

Amaiur: Uste dut ibilbide hauek oso baliagarriak direla, batez ere Anoeta inguruan mendian ibiltzeko ohitura dutenentzat. Horrez gain, anoetar askok ezagutzen ez dituzten baserrietatik pasatzen da ibilbideetako bat, eta hori ere nabarmendu beharreko alderdia iruditzen zait.

Xabier: Nik ere antzeko iritzia dut. Horri gehitu behar zaio ibilbideak errazak direla, eta gainera, baserritarrentzat ere euren soro eta lursailak iristeko bide garbiak geratu direla, praktikoago bihurtuz eguneroko jardunak.

Nola balioztatzen duzu herritarren parte-hartzea eta elkarlana?

Xabier: Niretzat ere lehen aldia izan da auzolanean parte hartzen, eta 15 bat lagun elkartzu ginen. Egia da beti pertsona berak ibiltzen direla horrelako ekimenen bueltan, eta egunen batean nekatzen badira... ea orduan zer gertatzen den! Hala ere, oso pozik aritu ginen.

Amaiur: Erabat ados. Niri kezkarria iruditzen zait herri ekimenetan, oro har, beti pertsona berdinek hartzen dutela parte, nahiz eta noizean behin norbait berria agertu.

Uste duzu horrelako ekimenek herriaren kohesioa sendotzen dutela?

Amaiur: Bai, noski. Hala ere, aurreko galderara itzuliz, pena ematen dit halako ekimenetan jende berria gutxi animatzen dela ikusteak. Nola lortu hori? Egia esan, ez daukat argi...

Xabier: Ados nago. Gakoa, nire ustez, horrelako ekimenak nola zabaldu daitezkeen da, herritar gehiagok parte hartzeko gogoia eta grina senti dezaten.

Etorkizunean auzolan egun gehiagotan parte hartuko duzue?

Xabier: Bai, noski, oso gustura aritu nintzelako. Eta egia esan, hamaiketako ere primerakoa izan zen —kar-kar!

Amaiur: Nik ere parte hartuko nuke. Gainera gehiago ikasteko gogoz geratu nintzen, eta irakasle hauekin zer esanik ez!

Herriko festak

Anoetako festak, bizipozez beterik



Las fiestas de Anoeta, llenas de vida

Las fiestas de Anoeta, desde sus mismos inicios, han demostrado la fuerza de la amplia participación ciudadana y de las numerosas actividades organizadas para fomentar un ambiente festivo intenso. El cuco — querido personaje convertido en símbolo de las fiestas patronales — anunció con su comparecencia en el balcón del Ayuntamiento el inicio de la segunda txanpa y, como es habitual, una multitud se congregó en la plaza para dar la bienvenida a ese momento tan especial.


En resumen, las fiestas de Anoeta han dejado claro que son representativas de un pueblo cohesionado: combinando tradición, participación y convivencia, a través de un programa festivo adaptado a todas las edades y gustos. Gracias a la implicación ciudadana, las celebraciones han adquirido un carácter especial, consolidando la identidad y la solidaridad del pueblo.

Anoetako festek, hasieratik erakutsi dute herritarren parte-hartze zabalak eta antolatutako ekintza ugariak jai giro bizia sustatzeko duten indarra. Kukuak —herriko festen ikur bihurtutako pertsonaia maitea— Udaletxeko balkoian egindako agerraldiarekin iragarri zuen bigarren txanparen hasiera, eta ohiko moduan, jendetza bildu zen plazan une berezi horri ongietorria emateko.

Egitarauak jarduera ugari eskaini ditu, eta horien artean nabarmendu dira danborradak sortutako giro ikusgarria, tortilla patatak prestatzeko parte-hartze aktiboa eta saiheski-janean izandako arrakasta handia.

Gainera, gastronomiaz harago, bizilagunen arteko elkarrekintza, solasaldi goxoak eta auzokideen arteko harremanak nabarmen indartu dira.

Laburbilduz, Anoetako festek argi utzi dute herri kohesionatu baten adierazgarri direla: tradizioa, parte-hartzea eta elkarbizitza uztartuz, adin eta gustu guztietarako egokitua den jai-egitarau baten bidez. Herritarren inplikazioari esker, ospakizunek izaera berezia hartu dute, herriaren nortasuna eta elkartasuna sendotuz.



Albiste laburrak



OinHerri eta Altxa Burua: batzarra eta hitzaldia

Egoitz Luisa alkateak OinHerriren batzar orokorrean parte hartu zuen, herri hezitzaileen dinamikari babesa emanez. Horrez gain, Anoetako Herri Hezitzaileak eta Altxa Burua taldeek pantailen inguruko hitzaldia antolatu zuten Mikelasagasti auditorioan. Herri hezitzailearen ikuspegitik, hezkuntza komunitate osoaren ardura da, eta erakunde, eragile eta herritarren arteko lankidetzaren bidez herritarren hazkuntza osoa sustatu nahi da.



Ikastolako jaia

Anoetako Herri Ikastolak Ikastolaren Eguna ospatu zuen ekainaren 8an, komunitate osoaren parte-hartzearekin eta giro alaian. Eguna ibilaldi neurtuarekin hasi zen, eta kalejira baten ondoren, ikasleen dantzak eta eskulanean erakusketa izan ziren. Bazkari herrikoiak, jolasak eta DBH 4ko ikasleen agurrak giro berezia eman zioten ospakizunari. Antolatzaileen lanari esker, jaia arrakastatsua izan zen.

Euskaraldia 365 egunez

281 anoetarrok eman dute izena Euskaraldiko edizio honetan. % 85 Ahobiziak izan dira eta % 15 Belarriprestak; eta gehiengoa emakumezkoa (% 65).

11 egunez aritu dira hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa eginez. Amaitu da 11 eguneko Euskaraldia, baina 11 egun geratzen dira hizkuntza-ohitura horiei eusteko!

Egin Anoetan euskaraz, gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan!

339 etxebizitzek %10eko hobaria jaso dute hondakinen kudeaketa arduratsuagatik

Herriko 339 etxebizitzak %10eko hobaria jaso dute 2025eko lehen hiruhilekoko zabor-tasan, auto-konposta edo auzo-konposta proiektuetan parte hartzeagatik. Serraila elektronikoaren sistemari esker, proiektuan izena emandako 367 etxebizitzetatik zenbatek parte hartu duten egiaztatu ahal izan du Udalak, eta horietatik 339k baldintzak bete dituztela baieztatu da. Hobaria aplikatuta, parte-hartzaileek guztira 38.385 euroko tasa ordaindu dute, aurreikusitakoa baino gutxiago, konpostajea bezalako praktika jasagarriak bultzatu dituztelako.

339 viviendas reciben una bonificación por compostaje responsable

El Ayuntamiento ha aplicado una bonificación del 10 % en la tasa de basura del primer trimestre de 2025 a 339 viviendas que participan en proyectos de autocompostaje o compostaje vecinal. Gracias al sistema de cerradura electrónica, se ha podido verificar la implicación efectiva de las 367 viviendas inscritas, de las cuales 339 han cumplido los requisitos. Como resultado, las familias han abonado un total de 38.385 euros, una cantidad inferior a la prevista, premiando así su compromiso con prácticas sostenibles.

Anoeta, elkar zainduz

Anoetako Udalak, herri zaintzaileagoa bilakatzeko asmoz, elkarlan publiko-komunitarioan oinarrituko den ekimen berria abiatuko du irailean. Zabalduz kooperatiba bidelagun izango duen prozesu honek, Anoetako Udala, herritarrek eta herriko eragileak elkarlanean jarri nahi ditu, gaur egun zaintzak ulertzen ditugun modua eraldatu eta zaintza plan bat sortzeko asmoz —bereziki adinekoen iraungipen luzeko zaintzan—. Lehen fasean, zaintzen inguruko diagnostiko bat egingo da, eta horren emaitzetatik abiatuz, zaintza plan bat diseinatzea eta herriko saretzea indartzea izango dira ekimenaren helburu nagusiak.

Animatu zaitez parte hartzera!

Anoeta, cuidándose mutuamente

Anoeta apuesta por los cuidados compartidos

El Ayuntamiento de Anoeta lanzará en septiembre una iniciativa de colaboración público-comunitaria, junto a la cooperativa Zabalduz, para impulsar un nuevo modelo de cuidados. El objetivo es repensar colectivamente los cuidados, especialmente hacia las personas mayores, y diseñar un plan local que responda a esas necesidades. En una primera fase, se realizará un diagnóstico que permitirá definir futuras acciones y fortalecer la presencia del proyecto en el municipio.

¡Se anima a toda la ciudadanía a participar!



ANDU MARTINEZ DE RITUERTO (TG LEHENDAKARIA)

Tolosaldea Garatzenek 30 urte bete berri ditu

Eskualdeko garapen agentziak urte hauetan guztietan izan duen bilakaeraz, erronkez eta etorkizuneko helburuez aritu da Andu Martinez de Rituerto, erakundeko lehendakaria.

Zein balio nabarmenduko zenituzke Tolosaldea Garatzenen 30 urteotan egindako bidean?

Tolosaldea Garatzenen ibilbidea markatu duen balio nagusia elkarlana izanda, udalen artekoa, enpresa eta eragileen artekoa... helburu komunak ikusarazi eta haiek lortzeko bidea errazteko estrategia moduan.

Zeintzuk izan dira garapen agentziaren lehen urteetako erronka fundamentalak?

Bi nabarmenduko nituzke. Bate-tik, eskualdetasun indartzea, eta eragileei sinestaraztea denok garela elkarren osagarri. Bestetik, eskualdearen garapen sozioekonomikoa sustatzea, herritarren bizitza kalitatea hobetzeko tresna moduan.

Zein izan dira mugarri garrantzitsuenak zure iritziz (Lehiberri Foroa 2007, Zentroaren inaugurazioa 2013, Plan Estrategikoa 2018-2025...)

Tolosaldea Garatzenen 30 urteko ibilbidean ziklo eta mugarri asko aipatu daitezke, baina hiru azpimarratuko genituzke bereziki. Lehen, 2006ko Lehiakortasun diagnosis, enplegu politika aktiboen sustapenetik haratago lan esparru berriak jorratzeko bidea zabaltzea, enprekin eta eragileekin batik bat. Bigarrena, Lehiberri Zentroaren irekiera 2013an, eskualde mailako proiektu eta zerbitzuak gorpuzteko gune bihurtu den azpiegitura. Eta hirugarrena, 2018an ondutako Tolo-

saldea Saretzen Plan Estrategikoa, eskualdeko garapena ikuspegi berri batetik irakurtzen lagundu zuena, besteak beste, jasangarritasuna, energia eta kolektibo zaurgarriekiko arreta agentziaren plangintzetan txertatuz.

Nola lagundu du Tolosaldea Garatzenek etxeko ekintzaileak sustatzen?

Ekintzaileekin etengabeko lanketa bultzatzen da, formakuntza eta sentsibilizazio alorrean, eta jakina, proiektuen sorreran bidelagun bihurtuz, finantzazioa ahalbidetuz eta bideragarritasun planak burutuz.

Zer bilakaera izan du Lehiberri Foroa, gaur egun 68 enpresa biltzen dituela jakinik?

Eskualdeko enpresa nagusiak foro horretako kide dira, eta haiei esker hainbat proiektu berritzaile bideratzeko masa kritikoa bermatuta daukagu. Hala ere, gure helburua da sare hori zabaltzea eta ahalik eta enpresa gehien eskualdeko estrategiekin lerrokatzea.

Zertan lagundu du agentziak enplegu politiken bidez eskualdeko lankidetzaren indartzen (alor ekonomiko-sozialean)?

Enplegu politikari dagokienez, gure agentziak orientazio zerbitzua dauka Lehiberrin, enplegu zentro bat, ekintzaile berrientzat bulegoak, e.a. ditu. Baina horrez gain, eragile ekonomiko eta sozialek

osatutako taldeak kudeatzen ditu, enpresen berrikuntza eta lehiakortasunaren hobekuntza laguntzen du, kalitatezko turismo jasangarria sustatzen du, herritarrei kontsumo alorrean aholkularitza eskaintzen die... errealtatea konplexua da eta alderdi askotatik eragin behar zaio hobetu dadin.

Zein da gizarte eragileen arteko elkarlana tokian tokiko erronka sozialetan (migrazioa, aukera-bereintasuna)?

Enplegu eta Inklusioko TolosaldeaLab foroa bezalako ekimenei esker gizarte eragileen arteko koordinazioa sustatzen da, zailtasun bereziak dituzten herritarrei aukerak sortzen laguntzeko.

Nola planteatzen duzue trantsizio ekologiko eta digitalizazio erronkei aurre egitea?

Etengabe lan lerro berriak aktibatzen ari gara, hala nola, eskualdeko energia plana, mugikortasun estrategiak, industria 4.0 eta digitalizazio alorreko garapenentarako aholkularitza, e.a. horretarako erakunde eskumendunekin lankidetzan ari gara, gura ahalik eta baliabide gehien erakartzeko.

Zein erronka ditu eskualdeak belau-naldien arteko erreleboan?

Eskualdez gairik ere errealtatea da hori, baina gurean ere bete bete eragiten digu jada, zuzenean (langile premiari erantzun beharra) eta zeharka (migrazioa eta harrera planak kudeaketa beharra). Lehen sektorea eta merkataritza bezalako sektoreetan ere agerikoa da errelebo zailtasunaren neurria.

Nola neurtuko duzue hurrengo urteetan lortutako eragina (enplegu, kohesioa, iraunkortasuna)?

Gure asmoa da aurten Plan Estrategiko berri baten lanketa abiatzea. Hor zehaztuko ditugu etorkizuneko helburuak, lan ardatzak eta adierazleak.

